

Irudikak Ca_teter eta María Barriga artisten 2024ko Egonaldietako proiektuak aurkeztuko ditu Gasteizko ZAS Kultur Espazioan

Irudikak, ilustrazioaren nazioarteko azoka profesionalak, ilustrazio eta animazio diziplinetako egonaldi artistikoen programan parte hartuko duten bi proiektuak aurkeztuko ditu. Martxoaren 7an, asteartean, Ca_teter (Jorge Mato) Uruguako ilustratzailea eta María Barriga Madrileko artista bisuala Gasteizko ZAS Kultur Espazioan izango dira zuzenean azaltzeko La Cité internationale de la bande dessinée et de l'image, la Casa del Autor de Zapopán-Guadalajara (Mexiko) eta Bilbaoarte Fundazioa zentro artistikoetako egonaldietan egingo duten lana eta izango dituzten helburuak. Prozesu hori burutzeko, erakusketa bat egingo da Gasteizen Vital Fundazioaren laguntzarekin.

- ***Egonaldietan, bi artista horiek egingo dituzte Irudika 2024 ilustrazioaren nazioarteko azoka profesionalaren zazpigarren ediziorako ilustrazioa eta animazioa, eta aukera izango dute euren proiektu pertsonalak garatzeko, Ca_teteren kasuan “Mis pies planos” lana eta Mariarenean “Próximo destino” izeneko.***
- ***Angoulême, Mexiko eta Bilboko sorkuntza zentroetako egonaldian garatutako lanarekin erakusketa bat egingo da maiatzean Gasteizen, egonaldiak amaitzen direnean. Prozesua eguneroko moduan jarraitu ahal izango da irudika.eus-en webgunean.***

Irudikak 2024ko jardueren agenda estreinatzen du, ezagutzera emanez artistei laguntzeko Irudika Egonaldiak programako proiektuak. Datorren martxoaren 7an, ostegunean, arratsaldeko 19:00etan Gasteizko ZAS Kultur Espazioan (San Anton Plaza, 2an) egingo den topaketan, artista aukeratuek ezagutzera emango dituzte egonaldi artistikoetan landuko dituzten proiektuak. Hitzaldia zuzenean emango da Irudikako sareetatik.

Ca_teter, Jorge Matoren ezizena eta Maria Barrigak solasaldi ireki batean hartuko dute parte, Kike Infame dibulgatzaile eta Irudika Egonaldiak programaren koordinatzailea ariko delarik gidari. Solasaldian ezagutzera emango dituzte datozen bi hilabete eta erdian La Cité internationale de la bande dessinée et de l'image, la Casa del Autor de Zapopán eta Bilbaoarte Fundazioa espazioetan egingo duten lana. Denbora horretan, artista bakoitzak proiektu pertsonal bat burutuko du eta Irudika 2024 azokaren irudia eta azokaren sustapenerako klip gisa erabiliko den animazioa sortuko dute. Egonaldiei buru emateko, erakusketa bat egingo da Gasteizko Sancho el Sabio aretoan proiektuen garapena erakusteko Vital Fundazioaren laguntzarekin.

Laguntza programa horri esker, aukeratutako bi artistek bi hilabete eta erdiko egonaldia egingo dute, martxoaren 7etik maiatzaren 24ra bitartean, Frantziako Angoulême hiriko eta Mexikoko Zapopaneko sorkuntza espazioetan, eta amaierako fasea Bilbon burutuko dute azken piezak ekoitziz sorkuntzako zenbait tailerretan (grabaketa, medialab, eskultura, etab.). Irudika Egonaldiak maiatzean amaituko dira, Gasteizen egingo den proiektu osoaren erakusketarekin.

Deialdi honen babesle dira Acción Cultural Española (AC/E) eta Vital Fundazioa, eta kolaboratzaile ditu BilbaoArte Fundazioa, Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image d'Angoulême-France, Cultura Guadalajara (Mexiko) eta La Casa del Autor de Zapopan (Mexiko). Euskadiko Ilustrazioaren Elkarte Profesionalak, Euskal Irudigileak,

antolatzen du Irudika programa.

Irudika 2024 Egonaldien egutegiak lau fase ditu:

1. FASEA: martxoaren 7etik apirilaren 8ra bitartean. Angoulême - Maison des Auteurs. Kontzeptu grafikoaren prozesua / kartela eta proiektu pertsonalak garatu.

2. FASEA: apirilaren 12etik maiatzaren 12ra bitartean. Guadalajara eta Zapopán (Mexiko) - Casa del Autor: Amaierako obra garatu eta ekoitzi.

3. FASEA - maiatzaren 12etik 24ra bitartean - Bilbaoarte Fundazioa: Amaierako piezak eta arteak ekoitzi instalaziorako eta erakusketarako.

4. FASEA - maiatzak 24 - Gasteizko erakusketaren inaugurazioa.

Hauk dira bi artisten curriculumak:

Ca_Teter, Jorge Mato ilustratzailearen izengoitia, (Montevideo, 1977) Arte Plastiko eta Bisualetan lizentziatua da eta Ediciones de la Uniceja argitaletxearen sortzailea. Gainera, La Gran Carrera lanaren egilea da, White Ravens 2021 katalogoan parte hartzeko hautatua eta 2021eko Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionalaren irabazlea. Bestek beste, 2018an Arte Bisualen Sari Nazionalen eta 2023an Arte Bisualen Udal Aretoan hautatu zuten, eta 2018an eta 2023an Uruguako Ilustrazio Saria irabazi zuen. 2024an Egonaldietarako hautatu duten proiektua "*Mis pies planos*" da, izaera autobiografikoa duen argitalpena. Bertan, marrazkia eta testua batzen dira, egilearen beraren esperientziez elikatzen den unibertso grafiko-poetiko bati forma ematek. Epaimahaiak lan hau "ikusizko arteen, autoedizioaren eta ilustrazioaren artean erdibidean egindako lanagatik" aukeratu du. Bere proiektu pertsonalaren arabera, oroitzenak, bizipenak edo elkarrizketak ilustraziora eramateko duen gaitasuna. Egile trebatua, topaketaren grafikoan eragin bisual handia izan dezakeena."

María Barriga Madrilen bizi den animatzaile eta ilustratzailea da, eta Diseinuan graduatuta dago Complutense Unibertsitatean. Danimarkako The Animation Workshop-en parte hartu du. Frame a frame animazio-lanean sakondu zuen eta Prodigioso Volcán komunikazio-agentziako animazio-taldeko kidea da. Irudikak aukeratutako proiektuaren izena da Próximo Destino, eta misio bat gauzatzeko programatutako robot bat du protagonista, baina ez daki zein den, ezta zergatik ere. Epaimahaiak proiektu hau aukeratzea erabaki du "bere proposamenaren freskotetasunagatik, bideari buruzko hausnarketa, bertan sakrifikatzen dugun guztia, zergatik egiten dugun eta honek beti nola harritzen gaituen. Proposamen ludiko eta koloretsua, egoitza barruan artista gisa haz daitekeen talentu gazte baten bizitasuna islatzen duena."

Informazio gehiago eta elkarrizketak, hemen:

www.irudika.eus // media@irudika.eus // 658 70 31 51 (Guillermo Royo)